

GIPUZKOAKO
ERALDAKETA
ENERGETIKOKO
BULEGOA

ENERGIA KOMUNITATEENTZAKO (EEKK) ZERBITZU-ENPRESAK



ENERGIA KOMUNITATEENTZAKO (EEKK) ZERBITZU-ENPRESAK

Energia-komunitate bat (EK) sortzeak eta martxan jartzeak konplexutasunez betetako bidea jorratzea eskatzen du. Ez dira gutxi ideia-erantzak sortzeko geroztik martxan jarri bitartean egin beharreko zereginak, baita funtzionamendu-etapan ere, eta askotan ez da partaideen eskura egoten lan horiei euren kabuz aurre egin ahal izatea. Eta, askotan enpresa espezializatuengana jotzeko beharra izaten dute laguntza jasotzeko.

EEKKak oso fenomeno berria dira, eta, beraz, gaur egun ez dira asko arlo horretan espezializatutako enpresak. Hala ere, asko gaituta daude eta nahikoa kaudimen dute zerbitzu ona emateko, eta, bide batez, eremu berri hau jorratuz joateko. Besteak beste, zerbitzu hauek eskaini ahal izango dituzte: kideak erakartzeko laguntza, EK sortzeko izapideak egitea, instalazioak dimentsionatzea, kokatzea eta legezztatzea, eta funtzionamendu-fasean kudeaketa-lanak egitea.

Liburuxka honen helburua da KKEEei, euren beharrei erantzunez, laguntza emateko gaitasuna izan dezaketen enpresa-moten berri ematea.

ARLOAK	ZEREGINAK	ENPRESA MOTA
DIFUSIOA ETA SUSTAPENA	<p>Egitasmoaren zabalkundea eta Komunikazioa; bazkideak erakartzea</p> <p>Eragile giltzarriak identifikatu eta talde bultzatzailea sortu</p> <p>Bilera eta topaguneen dinamizazioa</p> <p>Prestakuntza-saioak</p>	<p>Energia-komunitateak dinamizatzen esperientzia duten enpresak</p>
JURIDIKOA	<p>Lege-figura (elkartea, kooperatiba) aukeratzeko baldintza tekniko, juridiko eta ekonomikoen azterketa; estatutuen idazketa; etab.</p> <p>Energia Komunitatera atxikitzearen ereduaren idazketa</p> <p>Teilatuaren lagapena: adostea eta dokumentuak idaztea</p>	<p>Kabinete juridikoak</p> <p>Kooperatiba izaera duten energia-komunitateen kasuan, komenigarria da kooperatiben aholkularitza egiten duten kudeatzaileengana jotzea</p>

ARLOAK	ZEREGINAK	ENPRESA MOTA
ADMINISTRATIBO-TEKNIKOA	<p>Energia-fluxuen azterketa eta optimizazioa</p> <p>Erabiltzaileen arteko banaketa-koefizienteen kalkulua</p> <p>Bazkideen energia banaketa akordioa kudeatu banatzailearen aurrean. Oro har, merkatu elektrikoko eragileekin eta enpresa merkaturatzailearekin hitz egin eta beharrezko izapideak egin autokontsumo partekatua martxan jartzeko</p> <p>Faktura elektrikoaren optimizazioa</p> <p>Merkaturatzailearen aldaketen kudeaketa, hala badagokio</p> <p>Kontratu ereduak idaztea, erabiltzaileen artean konpentsazioak eta banaketak aplikatzeko</p> <p>EK erregistroan inskribatzeko kudeaketa</p> <p>Proiektuaren eta instalazioaren izapidetze administratiboa: kudeaketa administrazioarekin eta sektore elektrikoko enpresekin</p>	<p>Energia komunitateetan aritzen diren enpresak</p> <p>Energia gaietan eskarmentudunak eta honi lotutako arlo administratiboa ezagutzen dutenak</p>
EKONOMIKO-FISKALA	<p>Ekonomia bideragarritasunaren azterketa</p> <p>(EK martxan) Komunitate energetikoen gastuei/inbertsioei/kapitalari lotutako fakturak igortzea, kudeatzea</p> <p>(EK martxan) Autokontsumitutako energia-fluxuen esleitzea eta inbertsioaren itzuleraren kalkulua</p> <p>(EK martxan) Bazkideen altak eta bajak kudeatzea</p> <p>(EK martxan) Bazkideei kobrantzak egitea</p> <p>(EK martxan) Fiskalitate arloko izapidetzeak</p> <p>(EK martxan) Finantzazio eta diru-laguntzen eskaeren tramitazioa</p>	<p>Aholkularitza ekonomiko/finantzarioa eskaintzen duten enpresa edota gestoriak</p> <p>Kooperatiba izaera duten energia-komunitateen kasuan, komenigarria da kooperatiben aholkulari diren gestoreengana jotzea</p> <p>Lan hauek etxebizitzetako administratzaile baten lanaren modukoak dira</p> <p>Administrazio-atalaz arduratzen den bazkide batek edo lan-talde batek ere egin ditzake</p>

ARLOAK	ZEREGINAK	ENPRESA MOTA
TEKNIKOAK	<p>Potentzialtasunaren azterketak: fotovoltaikoa, beste iturri batzuk</p> <p>Instalazioak eraikitzea: moduluak, bateriak, karga-puntuak...</p> <p>Instalazioen euskarri teknikoa eta mantentze-lanak</p>	Energia berriztagarrien instalatzaileak